



DROGAK

Debekuaren gakoak

Erreportajea Gezur farmakologikoak eta interes ilunak

Elkarrizketa Fermin Castiella, Nafarroako Droga-mendekotasun Planaren zuzendaria

Iritzia Debekuaren politika, estatu-krimena ♦ Pedro Quesada



Gezur farmakologikoak eta interes ilunak

Gizakiok milaka urte daramagu drogak erabiltzen, eta aldian aldiko agintariek haiekiko agertu duten jarrera ez da beti berdina izan. Historian zehar, ezagutzen ditugun droga guztiak, tabakoa eta kafea barne, debekatuta egon dira noizbait eta nonbait; baina zalantzarik gabe bizitzen ari garen aroa da debekuzaleena. Horrek ekarri dituen ondorioez, nola debeku oro ezabatzeak ekarriko lituzkeen abantaila edo desabantailaz, luze hitz egin da dagoeneko. Ondoko erreportajea politika horien jatorria eta garapena aztertuko ditugu, batez ere Antonio Escohotado pentsalariaren lanean oinarrituta. Amaieran, debekuari eusten dioten indarrez ere mintzatuko gara. Substantzia psikoaktibo asko lege kanpoko izendatzea askoz okerragoa suertatu da konpondu nahi zen arazoa baino; hala ere, drogari buruzko ez-jakintasunak eta zenbaitzuk status quo honi esker lortzen dituzten mozkinak asko zailtzen dute egoera iraultzea.

■ Unai Brea

2009ko maiatzean, ARGIAren 2.182 zenbakian, Britainia Handiko Transform Drug Policy Foundation elkarteak argitaratutako txosten baten berri eman genizuen. Kopuru zehatzak erabilia, txostenak agerian uzten zuen droga guztiak legeztatzeak, bestela ere argi ikusten diren onurez gain –kriminalitatea murriztea, milaka atxiloteta eta espetxeratze saihestea, pozoitutako suzedaneak kaletik desagertzea...–, alderdi ekonomikotik ere mesede egin-

go liokeela estatuari. Horrela erantzun zion Transform Drug Policy Foundation-ek apur bat lehenago Londresko Gobernuak esandakoa: legeztatzearen abantaila batzuk ukaezinak izanda ere, horrek sortuko lukeen gastua handiegia litzatekeela, eta horregatik ez zutela hala korik sustatuko, ez etxean eta ez nazioartean. Gobernuko arduradunek, baina, ez zituzten mahai ganean ipini euren baieztapena justifikatzen zituzten zenbakiak.

Aurreko Larrunaren azalean oker jarri genuen zenbakia. 155.a zen eta ez 156.a, guk ipini bezala.

Azala: Garbine Ubeda Goikoetxea · **Maketazioa:** Antza Komunikazio Grafikoa

LARRUN pentsamendu aldizkaria ARGIArekin batera banatzen da. **Zuzendaria:** Xabier Letona. **Jabea:** Komunikazio Biziagoa S.A.L. **Helbidea:** Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160 Lasarte-Oria **Posta elektronikoa:** larrun@argia.com **Telefona:** (00 34) 943 37 15 45 **Inprimategia:** Antza Komunikazio Grafikoa (ARGIAren 2.287. zenbakiarekin banatua, 2011ko uztailaren 31n)

Aipatutako txostena adibide bat baino ez da. Azken hamarkadetakako droga politikaren ondorioak aztertzeko hainbat ikerlan independente egin dira, eta denek ondorio bera eman dute: zenbait substantzia legetik kanpo uzteko estrategiak ez du bere helburua bete, aurkakoa baizik –alegia, kontsumoa, gutxitu beharrean, handitu egin da–, eta gainera, debekuak bestelako arazo batzuk sortu ditu.

DUELA MENDE BAT EZ ZEGOEN PROBLEMA

Antonio Escohotado egile espainiarra harago doa: debekuak arazoa sortzen du lehen arazorik ez zegoen lekuan. Madrildarraren eskuari zor zaio drogari buruz inoiz idatzi den lanik osoenetakoa, zehatzenetakoa eta zalan-tzarik gabe mardulena: *Historia general de las drogas* (Drogen historia orokorra). Beste gauza askoren artean, bertan esaten du XX. mende hasieran, garai hartan ezagun ziren droga guztiak –gaur egun baino askoz gutxiago– farmazietan libreki eros zitezkeen, haien kontsumoa ez zela konponbidea behar zuen gaitz soziala. Ez zegoen Arazorik, letra larri, eta izatekotan zenbait erabiltzailek, ez gehiegik, izango zuten droga-rekiko harreman desegokia. “Zalantzarik ez da bazirela opioaren, morfina-ren eta heroinaren mendeko-

ak, baina fenomenoak, bere osotasunean –hau da, kontsumoa neurrian zein neurritz kanpo egiten zutenen batura–, oso gutxitan eskuratzzen zuen hedabideen arreta, eta inoiz ez epaile eta poliziena. Droga ez zen gai juridiko, politiko edo gizarte-etikakoa”.

Alabaina, Escohotadoren esanetan beti ere, bazen, sasoi hartan, egoeragatik protesta egiten zuenik. Esan daiteke orduan hasi zela erretzen hamarkada batzuk geroago gaur egun indarrean dagoen debekuarekin burutu zen prozesua. Gurutzada farmakologikoa, deitzen dio madrildarrak.

Gero eta indar handiagoa hartu zuten talde haiek AEBetan. Puritanismoa zuten ezaugarri nagusi, eta begi txarrez ikusten zuten substantzia psikoaktiboen kontsumoa; haientzat, bizioa baino, krimena eta gaixotasun kutsagarria zen. Fenomenoak zerikusia du talde haien jarrera arrazista, xenofobo eta fundamentalistekin. Hala, droga bakoitza gizatalde zehatz batekin lotzen zuten: opioaren inguruko lehen alarma soziala txinatarrei egotzitako adingabeen korrupzioaren testuinguruan piztu zen; kokaina, bel-tzek egiten omen zituzten delituekin lotuta; marihuanarena, mexikar etorkin oldeak agertzearekin batera; alkoholarena, irlandar eta judutarren ustezko moralitate ezarekin.



Heroina 1883an aurkitu zuten Bayer-eko kimikariek; hari eta aspirinari esker, alemaniar enpresa txikia multinazional erraldoi bihurtu zen. Heroina hamarkada askotan saldu zen farmazietan, baita errezetarik gabe ere. Umeen eztula sendatzeko gomendatzen zuten, besteak beste.

“

XX. mendeko lehen hamarkadetan, opio, morfina eta heroinaren ohiko hartzaile gehienak helduaroan edo zahartzaroan sartutako herritarrak ziren, beren eguneroko egitekoak betetzeko inolako arazorik ez zeukatenak

Bitxia bada ere, beste substantzia psikoaktibo batzuk, aipatu ditugunak baino askoz toxikoagoak, barbiturikoak esaterako, ez ziren lotu inolako talderekin, eta estigmatz libre, gerora etorriko zen debekutik kanpo geratuko ziren.

1895ean sortu zen AEBetan Anti-Saloon League, luze gabe milioika kide bildu zituen

elkartea. “Amerika horditasunetik, jokatik eta haragizko bekatutik garbi”, horra bilatzen zuten helburua. Drogei dagokienez, hasiera batean taldeak alkoholaren aurka baino ez zuen egiten, baina laster hasi ziren gainerako substantzien aurka ere. Horren arrazoia izan zen puritanoek bidaidea aurkitu zutela: mediku eta farmazialari elkarteak, XIX. mende amaieratik belar-saltzaile eta petrikiloen kontrako gerran zebiltzanak murgilduta, drogen kontrola eskuratzeko.

Talde bien arteko aliantza 1903an gauzatu zen. Orduan esandakoak dira honakoak: “Farmazia batean saldu ez den drogaren bat beste bati ematen dionak, haren arima suntsitzen du”; “morfina deabrukeria da, baina bedeinkapen bilaka daiteke terapeuta diplomatuek banatzen badute”.



XIX. mendeko Txinako opio erretoki bat.

DROGA HARTZAILEAK, “GANORAZKO” HERRITARRAK

1905ean, opioa eta morfina AEBetako farmakorik salduenetakoak zirenean, talde hauetako zenbait buruk esan zuten substantzia horien salmenta askeak kriminal bihurtuko zituela mutikoak, eta prostituta neskatoak. Baina profetia hark erabateko debekua iritsi arte itxaron behar izan zuen bete ahal izateko. Bien bitartean, eta hala izango zen oraindik hainbat hamarkadatan, droga bi horien eta heroinaren ohiko hartzaile gehienak helduaroan eta zahartzaroan sartutako herritarrak ziren, beren lanbideak eta bestelako eginkizun sozialak inolako arazorik gabe betetzen zituztenak, Escohotadok azpimarratzen duenez.

Europar, berriz, egoera antzekoa zen, baina are gutxiago hitz egiten zen gaiaz. Drogak kon-

“

AEBetan, puritanismoaren eta mediku eta farmazialari elkartearen arteko aliantzaren presioak lortu zuen drogen erabilera murrizteko lehen legea ezartzea, 1914an

tsumitzea edo ez kontsumitzea antzerkira joatea edo ez joatearen, edota arrain asko ala gutxi jatearen parekoa zen; norberaren hautu bat, besterik gabe. Hala eta guzti, noizean behin hedabideek kezka agertzen zuten. Juan Carlos Usó valentziar historiagile eta soziologoak lan mardula du egina drogen historia aztertzen, beti ere Espainiako Estatua hartuta eremu;



SANTI RUIZ

honela mintzatu zaigu garai hartaz: “XIX. mende amaieratik hasita, espainiar egunkariak noizean behin zerbait esaten zuten Pariseko morfina kontsumo neurrigabeaz, edo Irlandako herritar baztertuenen artean eterrak zeukan arrakastaz. Ez zuten inoiz Espainiako adibiderik aipatzen. Bitxia da, bestalde, kezkarik handienetakoa eterraren gehiegizko kontsumoak eragiten zuela, alegia, gaur egungo droga ludi-

koen zerrendetan agertzen ez den substantziak”.

Edonola ere, farmazietan askatasun osoz eros zitezkeen substantziez ari gara, Usók gogorarazi duenez. “Droga haien efektuak eta aplikazio terapeutikoak ondo ezagunak ziren; kezka eta harridura eragiten zituen pertsona batzuek helburu ez-terapeutikoekin hartzea zen”.

JUNKIAK, DEBEKUAREN SEME-ALABAK

Substantzia psikoaktiboen alderdi txar guztien ikur nagusi heroina bilakarazi zutenez gero, ez da harritzekoa junkiaren figura erabili izana drogara “hurbiltzeak” dituen arriskuen eredu. Escohotadok 50eko hamarkadan kokatzen du junkien agerpena, AEBetan nola ez. Debe-kuak sortutako pertsonajea da, ordura arte ezezaguna. “Lehen, opioaren eratorriak hartzera ohituta zeudenak beren eguneroko egin-kizunak hobeto betetzeko energia iturri modura hartzen zuten droga. Kontsumitzaile mota berri honek guztiz aurkakoa bilatzen zuen: hartzaile tradizionalak baino askoz droga kopuru txikiagoak hartu arren, ez zuen helburutzat bere ardurak hobeto betetzea, bere burua arduragabe izendatzea baino”. Junkia ezaugarri bik definitzen dute, Escohotadoren iritziz: xiringaren erritualarekiko atxikimendua eta biktima rola jokatzeko. “Bestalde, ez dauka zentzu handirik pentsatzeak hartzen duten dena delako horren %5 bakarrik heroina izanda, benetako heroinomanoak direnik”. Horren arabera, junkiak bere drama antzeztu nahi du, bizitzak ezarritako beteharretatik ihesi, eta xiringaren askoz behar handiagoa dauka xiringa barruan dagoenarena baino. Droga hartzen hasi aurretik, eta ez drogaren erruz, arazoak zituen pertsona da. Beste era batera esanda: heroina kontsumitzeak ez zaramatza ezinbestean junkia izatera, hori izan arren uste zabal-duena.



ISMAEL VILLAGÓMEZ



TONY GARCÍA

DEBEKUZALE GUZTIAK EZ ZIREN ESKUINDARRAK

Drogen aurkako erreakzioa estatubatuar puritanismoak abiarazi zuen arren, Usók ez du uste haien tesi debekuzaleak azkenean mundu osoan gailendu izana pentsamolde kontserbadorearen garaipena izan zenik, “agian guztiz kontrakoarena baizik”. Adibide modura, Espainiako Estatuan drogaren kontrako kanpaina egin zuten lehen egunkari biak ekarri ditu gogora: “Bartzelonako egunkari bik gobernuari eskatu zioten zerbait egin zezan kokainaren erabilera ludikoaren zabalpena geldiarazteko; 1915ean egin zuen bata, 1917an bestea, artean kokaina farmazietan saltzen zenean. Bada, biak ziren ezkerreko argitalpenak, batez ere *Germinal*, bere burua errepublikazale erradikaltzat definitzen zuena”. Usóren esanetan, zenbait egilek uste dute AEBek beren gurutzada mundu osora zabaltzea lortu zutela garai hartan politika modernotzat hartua

izan zelako, ez kontserbadoretzat. “Kontserbadorea, une horretan, jendeari nahi zuena egitea uztea zen, eta estatuak esku hartzea berriz, aurrerakoia”. Esku hartze hura, hasiera batean, ez zen erabateko debekua izan, kontsumoa mugatzea baizik.

NAZIOARTEKO LEHENENGO HITZARMENAK

AEBetan, puritano-mediku-farmazialari hirukoteak bere nahiak lege bihurtzea lortu zuen azkenean: 1914an onartu zen Harrison Legea. Aurrerantzean, debekatuta egongo zen opioa, morfina, heroina eta kokaina errezetarik gabe kontsumitzea. Garai bertsuan, munduko beste herrialde batzuetan estatubatuar tesiak zabaltzen hasi ziren. Hau da, “dieta farmakologikoa”, Escotadoren berbak erabilia, estatuak arautu beharreko zerbait zela. Hagako Hitzarmenetan

(1912, 1913 eta 1914), zortzi herrialdek Harrison Legearen antzeko zerbañ adostu zuten, baina ez hain gogorra. Besteak beste, aipatutako drogen –heroina izan ezik– kopuru txikiak zeuzkaten konposatuen salmenta libre baimendu zuten. Hitzarmenetako garaitzat AEBak jo bazitezkeen ere, estatubatuar ordezkariak ez zituen atseginez hartu hain neurri epelak. Pozago jarriko ziren 1919an, Versaillesko Tratatuaren letra txikian Hagako Hitzarmenak gehitu eta ia munduko herrialde guztiek onartzea lortu zutenean.

AEBek gehiago nahi zuten, hala ere, eta beste nazioarteko batzar bat deitu zuten 1925ean, Genevan, baina amaitu baino lehenago alde egin zuten, haserre. Orduko akordioek ez zuten berrikuntza handirik ekarri hamarkada bat lehenagokoekiko. Batetik, heroina eta kalamua gehitu zitzaizkion kontrolatu beharreko substantzien zerrendari. Bestetik, sinatzaileek konpromisoa hartu zuten kontrolatutako drogak debekatuta zeuden herrialdeetara ez esportatzeko (une hartan AEBak ziren egoera horretan zegoen munduko estatu bakarra), eta trafiko ez-zilegiaren aurkako legeak sortzea edo ez deliberatzeko. Zigor bakartzat, substantzia konfiskatzea aurreikusten zen.

Neurri bigun horiek isekatzat hartu zituzten estatubatuarrek, baina Escohotadore arabera bat zetozen gainerako herrialdeetako egoerarekin: “Espainiako kasuak –bai Hagan bai Geneva sinatzaileetako izan zen– hala erakusten du: 1920 eta 1930 artean, bertako farmazietan opioa, morfina eta kokaina errezetarekin edo errezeta gabe ematen zirenean, sei pertsona baino ez ziren hil droga horien gaidosiagatik; horietatik bost, beren buruaz beste eginda”. Nolanahi ere, Genevako Hitzarmenaren onarpenak purutasun txikiko drogen merkatu beltz bat sorrarazi zuen, nola hamar urte lehenago AEBetan.

Sei urte geroago, eta berriz Genevan, Escohotadok “espiritu debekuzalearen lehen garai-

pen” modura definitzen duena gertatu zen: 1925ean sortutako Hitzarmenaren Batzorde Iraunkorrari toxikomaniaren kontra borrokatze-ko boterea eman zitzaion. “Hala ezarri ziren oinarriak nazioarteko erakundearen sare konplexua eratzeko, zeinak denbora igaro ahala milaka funtzionario izango baitzituen”. 1936an, azkenik, zigor-neurriak ezarri ziren, hori ere Geneva eta H.S. Anslinsgerren gidaritzapean. Hiru urte lehenago bertan behera utzitako Lege Lehorra betearazteko zeregina zuen agenteetako bat zen Anslinger, drogen debekuaren historian garrantzi handiko pertsonaia. Genevako hirugarren hitzarmenean estatu guztiek polizia zerbitzu espezializatuak sortzea lortu zuen. Gainera, lortu zuen sinatzaile guztiek bai droga trafikoa bai jabetza espetzeaz zigortzeko konpromisoa hartzea.

AEBek, bitartean, barne legedia gogortzen jarraitu zuten hurrengo urteetan. 1956an Narcotics Control Act delakoa promulgatu zen, heroina saldu edo edukitzeagatik zigorra biziki gogortu zuen legea. Urte hartan, estatubatuar kartzeletan apenas ziren 1.000 lagun preso heroina ukaiteagatik; erdia beltzak, mexikarrak eta Puerto Ricokoak ziren. Betidaniko kontsumitzaileak –zuria, 40 urtetik gorakoa, jendartearen posizio errespetagarri baten jabe–, errepresioaren eraginez, beste droga (legezko) batzuetan aurkitu zuen ordezkoa. Askok lagundu zion horri XX. mendeko 30eko hamarkadatik aurrera aurkitu edo sintetizatu zen substantzia berrien oldeak. Substantzia haietako askok ibilbide luzea egiten zuten farmazietan, libreki erosteko moduan, debekatutakoak bezain arriskutsuak –edo are gehiago– zirela agerikoa izan arte. Orduan, kontrolatu beharrekoen zerrendara eramaten zituzten.

Narcotics Control Act indarrean jarri eta lau urtera, heroina jabetzagatik espetxeratutakoen kopurua 10.000raino iritsia zen, eta kalean beste 50.000 zebiltzala kalkulatu zuten erakundeek.

DEBEKUA JUSTIFIKATU ZIENTZIARI BIZKARRA EMANDA

Artean, ondo definitu gabe zeuden droga adikzio-sortzaileak. Osasunaren Mundu Erakundeak bazuen halako substantziez arduratzen zen Aditu Batzorde bat, zeinak, 1953an, aldarrikatu egin baitzuen mota horretako drogak zirela ohitura, tolerantzia eta mendekotasun fisikoaren batura eragiten zutenak. “Ez zegoen, ordea –dio Antonio Escohotadok–, definizio horretan kalamua eta kokaina sartzerik, ez eta alkohola, barbiturikoak eta beste asko kanpoan uzterik ere”. Farmakologoen eta beste askoren protestak bultzatuta, adituek definizioa “gaurkotu” zuten 1957an, zera esanez: debekatutako drogek adikzioa sortzen dute; debekatuta ez daudenek, ohitura besterik ez.

Bereizketa horrek ez zeukan inolako zerikusirik farmakologia serioarekin, eta protestak ez ziren isildu, kontrakoa baizik. “Debekagarria definitzen saiatzeaz nazkatuta, ordurako debekatutako substantzien zerrenda bat zeukala esku artean [Escohotado 1963. urteaz ari da dagoeneko],

Aditu Batzordeko idazkariak adierazi zuen ‘ezinezkoa zela korrelaziorik ezartzea biologiaren datuen eta neurri administratiboaren artean’. Azkenerako, adituek proposatu zuten “adikzio” eta “ohitura” terminoak baztertu eta haien ordean “mendekotasuna” erabiltzea.

INFORMAZIO EZAREN LAINOAN GALDUTA

“Biologiaren datuekin” zerikusia ez duten legediek ezaugarritu dute azken bost hamarkadetako droga-politika. Erabateko debekuaren aroa horixe dela esan dezakegu. Edo izaten ari dela. Hori bai, hasierako urteetan, arazoaren tamaina txikia zen. Escohotadok aipatzen duen kalkuluaren arabera, 1960an, “200.000 hiritar zibilizatuk hartzen zituzten opioa, heroina, kokaina eta kalamua AEBetan eta Europan; txikieria bat, ehunka milioi biztanlerekin konparatuta”. Urtebete geroago sinatu zen, New Yorken, Drogei Buruzko Hitzarmen Bateratua, gaur egungo nazioarteko legediaren oinarri nagusia.



XX. mendean zehar, laborategiek barra-barra ekoitzi dituzte droga legalak, neurri handi batean debekatutakoen alternatiba bihurtu direnak.



Antonio Escohotado

“Biologiaren datuekin zerikusia ez duten legediek ezaugarritu dute azken bost hamarkadetako droga-politika”

Debekuak debeku, laborategiek etengabe ekoizten zituzten alternatiba legalak, eta munduko farmaziak mota askotako drogaz beteta zeuden. Bertan erositako produktu bat hartzeko ohitura zutenen kopurua debekurik gabeko garaikoaren zortzi edo hamar halako zen, baina horietako askok ez zuen uste ere egiten farmako psikoaktibo batenganako mendekotasuna zuenik. Egoera horrek berdin jarraitzen du gaur egun: adibide bakarra aipatzearren, bentzodiazepinak eta bestelako lasaigarriak tonaka saltzen dira errezeta sinple baten eta oso diru gutxiren truke. Substantzia horietako askok opioaren eratorriek baino askoz kalte handiagoa egiten diote osasunari denbora luzean hartuz gero, eta haien abstinentsia-sindromeak, herritar xeheari sinesgaitza egingo zaion arren, askoz arriskutsuagoak dira heroinarenak baino. Berdin esan daiteke alkoholarenaz, bide batez esateko. Horien hartzaileek, hori bai, ez darabate bizkar gainea “drogazale” estigmaren zama.

Merkatu beltzean zebiltzan mafiak, bestalde, loratu egin ziren debekuekin, eta horri esker, gorago aipatutako 200.000 haiek askoz gehiago ziren 70eko hamarkadaren amaiera iritsi zenerako. 1972an, AEBetako fiskal nagusiak alarma piztu zuen: “1961ean 50.000 inguru heroinomano geneuzkan. Gaur egun 560.000 direla uste dugu”. Europan antzeko jauzia egon zen, baina hamarkada bat geroago.

HEROINA GAINDOSIAREN MITOA

Heroinomano haiek ez zuten gehiegi fidatzerik hartzen zuten drogaren kalitateaz. 70eko eta 80ko hamarkadetako ikur bihurtu ziren ustez heroina gaindosiz hildakoak. Escohotadok gogorarazten duenez, ez da oso zentzuzkoa pentsatzea asko jota %10eko purutasuna duen heroina zainetan sartzeagatik hil dena, heroina gaindosiz hil denik, baina ofizialki hala sartu ziren estatistiketan xiringa besoetatik zintzilik zutela aurkitutako milaka hilotz. Beste gezur farmakologiko bat. Opioaren edozein eratorrik, gaindosiz hilko bazaitu, hainbat ordu beharko ditu horretarako, ez minutu batzuk. Dena den, era horretan hildakoek aspaldi utzi zioten alarma soziala eragiteari, haien kopurua ikaragarri jaitsi delako azken hamarkada bietan. Escohotadorentzat, droga kontuetan herritarrak beren kasa, estatuaren tutoretzarik gabe, ederki moldatzen dakitela demostratzen duen beste argudio bat da aipatutako adibidea.

INTERES EKONOMIKOAK, LEGEDIA ALDATZEKO OZTOPO NAGUSIA

Zenbait droga legez kanpo uzteak ekarri dituen ondorio latzak ondo ezagunak dira. Ikusi dugu, gainera, substantzia batzuk denda arruntera, beste batzuk farmaziara eta gainerakoak giro kriminaletara bideratu dituen sailkapena ez dela farmakologiarekin koherentea. Zergatik mantentzen da, orduan, hain argiro porrot egiteaz gain arazo berriak sortu dituen nazioarteko legedia?

Itxuraz funtsik gabekoa eman dezakeen arren, inertzia hutsa izan daiteke arrazoietako bat, Juan Carlos Usóren ustez behinik behin. Orain dela mende bat lehen debekuzaleek defendatutako arrazoi moralek ere hor segitzen dute hein batean. Drogen ondorioei buruzko

ez-jakintasunak ere laguntzen dio horri; zaila da 80ko hamarkadaz ondo gogoratzen den norbaiti sinestaraztea heroina ez dela berez substantzia maltzurra, eta modu egokian erabil daitekeela eta erabiltzen dutela milaka herritar anonimok. Datu zehatzak ematea ez da erraza, drogaren erabilera arazoekin lotuta dagoenean bakarrik bihurtzen delako ikusgarri. Balio beza adibide honek: 70eko hamarkadan AEBetan egindako inkesta baten emaitzak txundituta utzi zituen bertako agintariak. Bi milioi estatubatuarrek esan zuten heroina hartu zutela aurreko astean; kopuru hori poliziak egindako kalkulurik okerrera baino lau aldiz handiagoa zen. Horrek hankaz gora uzten zuen bertsio ofiziala, alegia, inor ez zela gai bere burua kontrolatzeko heroina bezalako droga bat hartuz gero. Izan ere, 1972an kontsumitzaileen %0,18k besterik ez zuen eskatu bere adikzioaz sendatzea.

Dena den, beldurrik gabe esan daiteke debeku politikek irautearen arrazoi nagusia haiei esker loratu diren negozioak direla. Koldo Callado EHUKo Farmakologia Saileko irakaslearen berbetan, “debekua sustengatzen duten interes guztiak ez dira ekonomikoak izango, baina haiek existituko ez balira askoz errazagoa litzateke hau guztiau normalizatzea”. Calladorentzat oso zaila da ulertzea tabakoa legezkola izatea eta kalamua ez, “munduko gobernuen atzean dauden botere faktikoei negozioa banatzen dutela pentsatu gabe”. Horri gehitu egin behar zaizkio arriskuen prebentzioan, adiktoen erreabilitazioan, substantzien kontrolean edo besterik gabe jazarpenean diharduten ehunka erakunde eta taldeak. Antolakuntza handiegia, egun batetik bestera desmuntatzeko.

Europako herrialde askotan Calladok aipatutako normalizazio horretarantzko urratsak eman dira de facto. Zailagoa ematen du herrialderen bat nazioarteko hitzarmenetatik ateratzek, horrek, besteak beste, AEBen presio handiak eragingo lizkiokeelako. Frogatu egin

da, ordea, akordioak urratu gabe estatubatuarrenak baino politika zentzudunagoak jar daitezkeela martxan. Hala, arrisku gutxitzea da Europako herrialde askotan nagusitu den filosofia. Horrek ez du eragozten espetxeetako maizterren erdia baino dezente gehiago droga trafikatzailer txikiak izatea –handiak, ia bat ere ez–, baina kontsumitzaileari arnasa apur bat ematen dio. Zenbait estatutan, izan ere, kontsumoa eta jabetza zigorgabetu dira, eta horrek ez du ekarri zenbaitzuk iragarritako egoera katastrofikoak. Zentzu horretan Europako herrialde liberalena den Holandan, berbarako, kalamu hartzaileen portzentajea txikiagoa da bere inguruko herrialde guztietan baino. Debekua izan da debekatutakoaren kontsumoan gorakada eragin duena, kontsumo problematikoan bederen.

“Drogaren erabilera gaixotasun eta delitu gisa agerraraztea XX. mendeko negozio handiena bihurtu zen”, dio Escohotadok. “Negotzio horrek, irauteko, drogak beren ondorio zehatzengatik ez bereiztea behar du, beren kategoria legalagatik baizik”. Saillkapen arbitrarioaren atzean, merkatu biren –zuriaren eta beltzaren– logika ikusten du espainiar egileak. “Merkatu zurian dauden produktuetatik, oso gutxi edukiko lukete arrakasta klandestinitatean. Baina droga desiragarrienak merkatu beltzean edukita, mozkin izugarriak lortzen dituzte baimendutako suzedaneoen zein debekatutako jatorrizkoen saltzaileek”. Gero eta ahots gehiagok eskatzen du egungo droga politikak errotik aldatzea, baina ez dute lan erraza: indar handiegi egin behar diete aurre. ■

 **Antonio Escohotado**

“Droga desiragarrienak merkatu beltzean edukita, mozkin izugarriak lortzen dituzte baimendutako suzedaneoen zein debekatutako jatorrizkoen saltzaileek”

Fermin Castiella

Nafarroako Droga-mendekotasun Foru Planaren zuzendari teknikoa

“Ez dago drogak legeztatzeari buruzko eztabaida egiteko asmorik ez girorik”

DIARIO DE NOTICIAS-EK UTZIA



Iruinsemea, 1993tik dago gaur egun daukan karguan. Droga guztiak legeztatzeari buruz muturreko jarrerarik ez daukala aldarrikatzen du, ez alde bateko ez bestekoa. Zail ikusten du gai horretaz benetako eztabaida soziala abiatzea, baina edozein kasutan, patxada handiz egin beharko litzatekeela dio, asko baitira kontuan hartu beharreko faktoreak.

■ **Unai Brea**

Gaurko egoeraz duzun iritzia ezagutzen hasi nahi nuke, modu orokorrean...

Lehenik eta behin zera argitu nahi dut: droga bat ona edo txarra izatea ez du haren estatus legalak ezartzen. Ez dugu gustuko alkoholarekin eta tabakoarekin gertatzen ari dena, zenbait baldintzatan batez ere, gazteak daudenean tartean. Orain, toki itxietan erretzea ez dugu onartzen. Batzuek diote alkohola ez dela droga, horixe delako beraiek hartzen dutena. Jarrera hori nahikoa ergela da. Droga da nerbio-siste-

ma zentralari eragiten dion printzipio aktiboa daukan zerbait. Multzo horretan sartzen dira alkohola, tabakoa, kafea, sendagaiak... eta lege kanpoko drogak, zeintzuetatik batzuk legezkotak diren osasungintzaren esparruan erabiltzen direnean. Kontzeptu horiek nabarmendu nahi nituzke. Eta bestalde, legearen barruko drogak ere araudi baten menpe daude: ezin da 18 urte bete arte erre eta edan, ezin daitezke substantzia jakin batzuk hartu mediku batek errezetatu ez bada... Izan ere, tabako, alkohol eta farmakoen merkatu beltza egon badago.

Gaur egungo sailkapen horrek (legezkoak, legez kanpokoak...) mesede edo kalte egiten du?

Kalte egiten duen droga norberak hartzen duena da. Argi dago eskuragarritasunak, prezio baxuak eta gizartearen tolerantziak erabilera areagotzen dutela. Baina nik ez dut esango erabilera hori ona ala txarra den; droga bat hartzen duena eragin positibo baten bila dabil. Eta gero, kalteak daude. On edo txar, norberak erabaki behar duen pertzepzioa da, nik ez dut erabakiko inoren orde.

Baina estatuak dagoeneko erabaki du gure orde zer den kaltegarria eta zer ez.

Nik ez daukat hain argi estatuak hala egiten duen. Nire aldetik, epaitu behar banu drogek egiten diguten kalterik handiena zein den, alkoholak eragindakoa dela esango nuke, gainerakoek baino askoz handiagoa.

Baina –barka tematzea– estatuak deliberatu du alkohola ez dela hain txarra, legezkoa dela ebatzi baitu.

Kontua ez da on/txar bereizketa egitea. Estatuari tabakoak eragiten dion osasungintzako gastua tabako salmentarekin lortzen duenaren bi halako da. Erabaki hori hartu duena leloa dela



SILVIA ARCAS

“Alkoholak, droga legezkoetan legezkoenak, sortzen du kalte gehien”.



“Orain, tabakoaren lege berria dela-eta, askok diote: hain kaltegarria bada, legez kanpo utz dezatela. Baina ezin dituzu legetik at utzi bost edo sei milioi espainiar, erokeria litzateke”.

esan liteke. Baina nik ez dakit estatuak benetan erabakitzen duen ala ez; beste garai batzuetan hartu ziren erabakien zama daramagu bizkar gainean. Tierno Galvanek, Madrilgo alkatea zenak, kalamuaren apologia egin zuen droga hori bere unean modernitate elementua zen heinean, aurreko erregimenarekiko hausturaren ikurra zelako. Ez zuen hitz egin kalamuak osasunerako izan ditzakeen ondorioez. Gaur ez genioke esanahi hori emango substantzia horri, baina orduko ondorioen zama daramagu. Oso gai konplexuak dira eta ezin dugu erredukzionismoz jokatu.

Lehengo galderara itzuliko naiz, nolanahi: indarrean dagoen substantzien sailkapenak mesedea edo kaltea dakar?

Uste dut biak dakartzala. Droga legezkoetan legezkoenak sortzen du kalte gehien. Zer egin dezakegu? Mahasti guztiak suntsituko bagenitu, lortuko genuke alkoholismoa desagertzea? Orain, tabakoaren lege berria dela-eta, askok diote: hain kaltegarria bada, legez kanpo utz

dezatela. Baina ezin dituzu legetik at utzi bost edo sei milioi espainiar, erokeria litzateke. Aldiz, honezkero legez kontrakoak direnekin zer egin, legeztatu ala ez? Uste dut legeztatzeari buruzko eztabaida egin behar dela, baina elementu guztiak kontuan izanda, eta patxadaz.

Ez dago halako eztabaidarik, ordea...

Egia da, ez da ematen ari. Batzuk oso sutuki agertzen dira legeztatzearen alde –“heldua nainenez gero, utzidazi nahi dudana egiten”–, eta beste batzuk, berriz, sutuki aurka daude, “hori txarra delako zure osasunerako, eta nik babestu egin behar zaitut”. Bagaude “ez bata eta ez bestea” esaten dugunok, arazoa aztertu eta abantaila eta desabantaila guztiak gogoan hartuta zer egin behar den erabakitzearen alde gaudenok.

Eta zergatik ez da eztabaidatzen?

Nire ustez, interes moral batzuk daudelako, eta jendeari ez zaiolako interesatzen analisia

egitea. Bestalde, batzuen eta besteen jarrerak oso elkarren aurkakoak dira; ez dago eztabaida hotz eta lasaia egiteko ez asmorik ez girorik, nire iritziz.

Zergatik da hain zaila indarrean dagoen drogari buruzko legediaren defentsa irmoa publikoki egingo duen inor aurkitzea?

Bada, Gobernuko ordezkariak egin beharko luke, bere lanbideagatik hala dagokio eta. Nik egin dizudan lehen argipena izan da ez ditudala gustuko ez egoera bat eta ez bestea, osasun publikoaz den bezainbatean. Dagokidan eremuan kokatzen dut nire burua, eta ulertzen dut jendeak harremana daukala drogekin, gure artean egon direlako eta badaudelako, eta gainera egotea nahi dugulako, beraz ez gara temakuko desagertu daitezen. Baina batzuoi ez zaigu gustatzen gertatzen ari dena. Alkoholak eragin-dako egoera ikaragarriak ditugu, eta orain ikusten ari gara oso jende gazteak kalamua hartzen hastearekin harremana duten patologiak.

Droga ordena publikoko arazoa da oraindik?

Ez, dagoeneko ez gaude 80ko hamarkadan, egunero lapurretak eta gaindosiz hildakoak zeuden garai hartan. Orain, droga kontsumoa, baita legez kanpokoena ere, beste testuinguru batean gertatzen da: jendeak bere lana edo bestelako beharrak betetzen ditu astelehenetik ostiralera.

Haatik, datuek diote espetxean dauden oso portzentaje handia drogarekin zerikusia daukaten delituengatik daudela preso.

Bai, dirua erraz lortzeko modu bat delako, eta hala norberaren kontsumoa ordaindu daiteke. Legez kanpoko drogen kontsumoak jarraitu egingo du, eta poliziaren jardunak merkatu bel-

tza desagerraraztea lortuko ez badu ere —ez baitu sekula lortu—, logikoa da eginkizun horretan luzaroan dabiltzanak azkenerako atxilotuak izatea.

Kalamua da azken urteetan ikerketa gehien eragin duen droga, haren kalteak azpimarratzeko hain zuzen. Aldi berean, askok diote kalamua bera izan daitekeela laborategirik onena, beste droga ilegalak arautzeko probasaioa egiteko. Ez da kontraesana?

Bereizi egin behar dira erabilera terapeutikoa eta ludikoa. Ez dute elkarrekin zerikusirik. Pertsona batzuk, 40 edo 50 urte dauzkatala, gaizki sentitzen dira, eta konturatzen dira marihuana erre gero hobera egiten dutela, ondo egiten dutela lo... eta beren bizimoduan txertatzen dute substantzia. Jokabide horrek gizartearen onespina dauka, seguru. Eta hori, medikuak esan gabe ere. Halako batean akupuntura deskubritzearen parekoa litzateke. Gizarteak, oro har, ez du hori deitoratuko. Jolas-erabilera besterik da. Tolerantzia handia egon da droga horrekiko eta orain ondorioak nozitzen ari gara: zenbait patologia psikiatriko gora egiten ari da, eta hori eragin duten faktoreen artean, bakarra ez bada ere, kalamu kontsumoa dago. Erabilera ludikorako kalamua despenalizatu aurretik, arreta handiz aztertu beharko lirateke kontu hauek.

Zer irudituko litzaizuke merkatu legal baina kontrolatu batean heroina, kokaina eta halako substantziak sartzea?

Onurez eta kalteez eztabaidatu beharko litzateke aurrena. Niretzat, heroina oso droga arriskutsua da, baita kokaina ere. Oso kontrolpeko zerbait izan beharko litzateke. Baina ez diot uko egiten horretaz hausnartzeari eta eztabaidatzeari. ■



Pedro Quesada

Abokatua, nazioarteko ENCOD elkarteko
Batzorde Eragileko kidea.

**Historia unibertsala hainbat ikuspuntu-
tatik azter daiteke, nork egiten duen.
Sistema bat izan liteke aztertzea, antzi-
narotik gaur egun arte, drogei –izan psi-
koaktiboak ala ez– eman diegun
erabilpena. Kontsumo motari eta sub-
stantzia jakin bakoitzari erreparatuta,
ibilbidea egin dezakegu historiaurretik
gaur arte, gure historiaren zati izan
diren kulturetan (antzinako Egipto, Erro-
matar Inperioa, Grezia, Islamismoa...) drogek izandako lekua aztertuz.**

Zoritxarrez, ibilbide bera egin daiteke dro-
gen kontsumo eta erabilerak eduki duen trata-
mendu juridiko-penalari begiratuta. Substan-
tzion erabilera ez du beti modu berean onartu
unean uneko jendarteak. Esan gabe doa, onar-
pen horretan eragina izan duela kultura bakoit-
zean nagusi izan den moral motak.

Egipto, Erroma edo Grezia bezalako kultu-
ra aurreratueta, substantzia psikoaktiboak era-
biltzea ohikoa zen, jendarteko goi-mailen priba-

Debekuaren politika, estatu-krimena

lejoa bazen ere. Aldiz, demokrazia eskasa eta
sistema politiko ahul eta baldarrak izan diren
beste aro batzuetan, drogen erabilera kontrol-
pean izan da, eta herri xeheak ukan zezakeen
ezein plazer zantzu, zigortua.

Bitxia da pentsatzea gaur libre gaudela sasoi
antidemokratiko horietan jatorria duen edozein
nahasmendu moralez; izan ere, gaur egun exis-
titzen da inoiz baino debeku gehien. Surrealista
da behatzea nola ustezko segurtasun orokorrak
zilegi bihurtzen duen banakoaren etengabeko
azpiratzea, eta nola, horren ondorioz, jendar-
tearen gehiengoari gogaikarri suertatzen zaion
edozein jarduera behin eta berriz debekatzen
den.

Joan den ekainaren 21ean 40 urte bete ziren
Nixonek besteen ordeztu pentsatzea erabaki eta
Drogei Gerra deklaratu zela. Une hartan hasi
zen gaur egun planetaren bazter guztietan
sufritzen dugun nazioarteko drama. Milioika
heriotza, antolatutako krimenaren hazkunde
ikaragarria, gainezka dauden espetxeak eta
herrialde gehienek sustengatu ezin duten osa-
sun-gastua eragin ditu drama horrek.



“Azken 40 urte hauek drogaren kontrako borroka esaten zaion horren porrota ekarri dute. Orain gutxi arte, sektore jakinek aldarrikatzen zuten publikoki porrot hori, baina honezkero NBE bezalako erakundeek ere baieztatzen dute. Gauza bera egin du, ahapeka eta erdizka besterik ez bada ere, Bruselak”

Nixonek Latinoamerika inbaditzea erabaki zuenean, narkotrafikoa desagerrarazteko asmoz, seguruenik ez zen jabetzen nazioartean eragingo zuen oinazeaz; bestela esanda, egiten ari zen hanka-sartzeaz.

Bost urte irauteko programatutako gerrak gaur arte dirau, milioika biktima sortu ditu, hala nola drogaren eskaintzaren eta eskaeraren etengabeko igoera, merkatu beltzarekin lotutako kriminalitatearen hazkundera, eta denok ongi ezagutzen ditugun gainerako ondorioak.

Lotsagarria da ikustea, denbora honetan lortu diren emaitzak lortuta ere, oraindik badaudela drogen aurkako gerraren aldeko politikari eta legegileak. Gaiaz aparte bizi den, eta beraz benetako informaziorik ez duen jendar-tearen zatian, zabaldua daude halako iritziak. Alabaina, datu objektibo guztiak eskue-tan dauzkatenen ahotik zenbait diskurtso entzutea nekez zuritu daiteke.

Hanka eta bururik gabeko gerra horrek sortu dituen interesak handiegiak dira; askatasunez iritzia ematea galarazten dute. Ezbairik gabe, mafia handiek kontrolatzen dituzte poli-tika egiteaz arduratzen direnen erabakiak, eta mafia horien artean kokatzen dut oraingo ego-

era mantentzeko interes handiena daukana: far-mazeutikoa.

Gerra bidegabe honen ondorioak nekez desaktibatu daitezkeen txostenetan jasota daude, eta txosten horiek munduko txoko guz-tietan egin eta egiten dira. Ondorioen artean daude, besteak beste, AEBetako Gobernuak 2,5 bilioi dolar gastatu izana, eta 40 milioi per-sona baino gehiago atxilotu izana, narkotrafi-koarekin eta substantzien jabetzarekin zeriku-sia duten delituak leporatuta.

Azken 40 urte hauek, honenbestez, drogaren kontrako borroka esaten zaion horren porrota ekarri dute. Orain gutxi arte, sektore jakinek alda-rrikatzen zuten publikoki porrot hori, baina honezkero Nazio Batuen Erakundea bezalako era-kundeek ere baieztatu dute. Gauza bera egin du, ahapeka eta erdizka besterik ez bada ere, Bruselak.

Droga politikak berraztertu daitezen jendar-teak behin eta berriro egiten duen eskariak mugiarazi egin du nazioarteko zenbait erakun-de. Hala, erabiltzaileen etengabeko zigorrean oinarritzen diren eta narkotrafikatzaile handien eta farmazia-multinazionalen interes ilunak ukitzen ez dituzten politika errepresibo horien emaitzak aztertu dituzte erakundeok. Emaiza berbera da gaiari buruz egindako txosten guzti-guztietan; objektibotasun zorrotzaz egindako txostenak, bidenabar. Emaitzok, baina, ezin deserosoagoak dira, onartzeko zailak.

Egoera hain da txarra, ia ezinezko bihurtu baita ilegaltasunaren muga dauden jarrerak defendatzen jarraitzea eta beste alde batera begiratzea, politika negargarriak ezartzen diren bitartean.

Jakina, politika horiek ez dira toki guztietan modu berean aplikatzen. Aldeak daude demo-kratiko esaten zaien herrialdeen eta hain demo-kratikoak ez direnen artean. Haatik, politika hauek, itxuraz zibilizatuagoak izan arren, orain-



dik jazartzen eta torturatzen dituzte askatasunez drogaren erabilera arduratsua egitea erabaki duten pertsonak. Politika horien ohiko ondorioa izaten da erabiltzailea merkatu beltzera jotzera kondenatzea, bere borondatearen aurka delinkuentzian eroriz, eta hasiera batean nahi zituen substantzien ordezkari batzuk eskuratuz. Horrek ondorio suntsigarriak dauzka erabiltzaileen osasunean, delinkuentziaren gorpilean murgiltzea gaitz txikia balitz. Esandakoa ageri-agerikoa da drogaren eremuan dabil-tzan langile guztientzat.

Azken urteotan nazioartean sona izan duten txostenen artean Reuter Trautmann izenekoa dago; Europako Batzordeak eskatu zuen 2008an. Emaitzak baieztatu egiten zuen, zalantzarako betarik utzi gabe, azken hamar urteotako droga politiken erabateko porrota, eta argi-ro aipatzen zituen, horren adibide modura, Europar Batasunak bere estatuen bitartez abian jarritako estrategiak.

Txostenak berebiziko garrantzia dauka Bruselaren –eta are NBEen– etorkizuneko estrategietan aldaketaren bat eragite aldera, baina Nazio Batuen Drogari Buruzko Gailurra egin baino astebete lehenago argitaratu zen, eta horregatik ez zen astirik izan organismo horretan eztabaidatzeko. Hala ere, eta askok uste zutenaren kontra, NBEk agiri bat plazaratu zuen, non esaten baitzuen txostenaren ondorioak ontzat ematen zituela eta gaur egungo politiken porrota aitortzen baitzuen.

Horrek ez zion aterik ireki, jakina, drogaren balizko legeztatzeari, edo haren merkatuaren arautzeari, baina behintzat, denbora luzez debekuaren aurkako taldeek mahai gainean jarri duten begien bistako errealitatea onartu zuten Nazio Batuek.

Bruselak, berriz, Europako Batzordearen bitartez, txostenaren balioa zalantzan jarri baino ez du egin, argudio gisa emanez ez dago-



“Ia estatu burujabe guztiek eta zenbait nazioarteko erakundek babestuta indarrean dauden droga politiken ondorioez hausnartzen badugu, badirudi emaitzak bat egiten duela Nazioarteko Zigor Arloko Gorteak ematen duen estatu-krimenaren definizioarekin”

ela praxian oinarrituta. Hala, lehenbiziko txostena baieztatuko duen bigarren bat eskatu du, baina kasu honetan praktika gehituz teoriari, ikerketa egitean. Historia bera nahikoa ez balitz bezala porrota erabat frogatzeko.

Interes ilunek sortutako gurpil-zoro ergelean jarraitzen dugu. Politika hauek aldatzeko aukera daukaten bakarrak estatu burujabeak dira, eta argudio hori aitzakia, Europar Batasunak inolako gomendiorik egiteari uko egin dio. Aldiz, estatuek europar erabaki baten sostengua behar dute lehen urratsak egin ahal izateko.

Nazioarteko Zigor Arloko Gortearen Erromako Estatutuaren arabera, estatu-krimenaren barruan daude hiltzea; deuseztatzea; deportatzea; espetxeratzea; torturatzea; bortxatzea; prostituitzera behartzea; antzutzea; arrazoi politiko, erlijioso, ideologiko, arrazazko, etniko eta abarrengatik jazartzea... eta sufrimendu handia eragiten duten edo osasun fisiko edo mentalari erasotzen dioten bestelako ekintzak, betiere ekintza horiek herritarren sektore baten aurkako eraso sistematiko eta orokor baten barruan egiten badira, eta erasotzailea horren jakitun bada.

Ia estatu burujabe guztiek eta zenbait nazioarteko erakundek babestuta indarrean dauden droga politiken ondorioez hausnartzen badu-

gu, badirudi emaitzak bat egiten duela Nazioarteko Zigor Arloko Gorteak ematen duen estatu-krimenaren definizioarekin.

Drogen aurkako gerra honen hastapenetik, begien bistakoa izan da ustelkeriaren, krimenaren, bazterkeriaren, pobreziaren eta beste arazo sozial batzuen gorakada. Estatubatuarren politika zentzugabeak lehen bost urteetan porrot egin zuela agerikoa bazen ere, ordura arte lortutakoa aztertu beharrean estrategia gogortzea izan zen hautatutako bidea. Helburua absurdua zen: gizateriaren eboluzio historikoan betidanik egon den ohitura desagerraraztea. Huts historiko horrek oraindik dauka, sortu diren interesen erruz, gutxiengo baten diskurtsoaren babes. Zoritzarrez, gutxiengo horren esku dago politikak diseinatzearen ardura.

Ez du ematen irtenbidea epe motzean etorriko denik. EBko estatuen mekanismo politiko eta legislatibo zentzugabeak ez du aukerarik ematen berchalako aldaketa erradikal baterako. Droga politiken aldaketa sakona abiatzeko prozesuak egoera sozial jasanezin baten beharra dauka, ia-ia.

Bitartean, antolatutako krimenak eta mota guztietako mafiek linbo juridiko honetaz gozatzeari jarraitzen dute. Kalkulaezinezko diru kopuruak poltsikoratzen dituzte erabiltzaileen bizkarretik, eta erabiltzaile horiek dira, gainera, gupidarik gabeko jazarpena jasan behar dutenak. Jazarpena, besterik gabe, substantzia bat hartzea hautatu dutelako libreki; gehienetan, kontsumo hori era naturalean egiten da, eta tradizioaren bermea du. Mafiek, berriz, sortutako egoera ikusita, atsedetik gabe dihardute kontsumo boluntario eta arduratsua aukeratu ez duten erabiltzaile berrien bila. Erabiltzaile horiek bultzatuak dira auskalo nondik eta nola datozen substantziak hartzera, eta kasurik onenetan baztertuta amaitzen dute, nola jendar-tean hala lantokian. Eta ez gutxitan, heriotza da bidaiaren azken geltokia. ■



Bazen behin...

Mahai-jolasa

4 ZAILTASUN MAILA

- Hasiberriak
- Jarraitzaileak
- Adituak
- Profesionalak

6+

Galdera-erantzunak
bost ataletan banatuta:

- Zirkulazio-aparatua
- Nerbio-sistema
- Digestio-aparatua
- Inmunitate-sistema
- Gaixotasunak

bizitza

2.200 galdera giza gorputzari buruz



39€

Harpidedunentzat

35€

Eskaerak: 943 36 86 61

info@luditoys.com

Ludi**toys**

www.luditoys.com

**"Egin jolas giza gorputzari buruz
beti jakin nahi izan duzuna ikasiz"**